



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

107. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Urtarrila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Donostia, Kulturaren Europako Hiriburua 2016an

Donostiak ofizialki hasi du Breslaviarekin (Wroclaw) batera, 2016an Kulturaren Europako Hiriburu titulua eman dion urtea. Inaugurazio-ekitaldi ofiziala urtarrilaren 23an egin dute Victoria Eugenia Antzokian. Ondoren, kontzertua eskaini eta Maria Cristina zubian inaugurazioko ekitaldia egin dute. Dena den, aurrez, eta Danborradaren hasierarekin (urtarrilak 20) batera, Europako hiriburutza jai-giro handiagoan inauguratu ahal izan dute hiritarrek.

“Elkarbizitzarako kultura” lelopean, Donostia 2016 Europako Hiriburutzak Europa osoari mezua igorri nahi dio artearen eta kulturaren bidez elkarbizitza hobetzeko. Horretarako, eta prestatutako jardueren programaren arabera, hiru itsasargi edo jarduera esparru daude: Bizitzaren Itsasargia (pertsonek eta gizarteak), Bakearen Itsasargia (errespetua eta bizikidetzak) eta Ahotsen Itsasargia (aniztasuna eta elkar-ulertzea).

Bestalde, Breslavia 2016ren (Wroclaw) inaugurazioa otsailaren 15, 16 eta 17an egin da.

Breslavia 2016ren leloa “Edertasuneko guneak” da eta metamorfosia eta aniztasuna dira haren ideia nagusiak. Horiek, era berean, hiriak izandako eraldaketako historia paregabearen oinarrituta daude.

Informazio gehiago:

<http://dss2016.eu>

<http://www.wroclaw2016.pl>



> Irekita dago Euskadi Landa Garapeneko Programaren 2015-2020ko Tokiko Garapen Estrategietarako deialdia

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak Tokiko Garapen Parte-hartzaileko Estrategiak onartzeko deialdi publikoa eta 2015-2020 programazio-aldian kudeaketaz arduratuko diren Tokiko Ekintza Taldeen hautaketa argitaratu ditu. Deialdia 2015-2020 Euskadiko Landa Garapeneko Programaren baitan kokatu behar da (2014-2020 LGP).

2015-2020 LGP 2015eko maiatzaren 26an onartu zuten. LGP Euskadiko landa-munduan bideratu nahi diren politikei bultzada eta laguntza emateko euskal erakundeen funtsezko tresna da.

Deialdi horretarako, 2015-2020 LGPan mugatutako Leader eremua izango da hautagaia. Bertan, 122 udalerrri daude eta horietako gehieneko biztanleria onargarria 93.346 lagunekoa da.

Toki-garapeneko estrategiak hautatzeko eskaerak Landa eta Itsasertzeko Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritzara bideratu beharko dira. Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da Agindu hau indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita (2016ko urtarrilak 4).

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/r01hProxyWar/r01hProxy_wl11_inter_boletin_apps1/bopv2/datos/2016/01/1600005a.pdf

<http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/informacion/pdr-2015-2020-euskadi/r50-pdr2020/es/>



KOHESIO-POLITIKA

> **Espainiako Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntza 2014-2020 Programa Operatiboa onartu dute**

Europako Batzardeak abenduaren 21ean onartu zuen 2014-2020 aldi berrirako Espainiako Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntza Programa Operatiboa. Onartutako Programa horren arabera, Espainiak 3.000 milioi euroko inbertsioa egingo du enplegua, prestakuntza eta hezkuntza hobetzeko. Zenbateko horretatik, 2.100 milioi EGEF eta EGIF komunitateko aurrekontuaren baitakoak izango dira.

Programa Operatiboak bereziki azpimarratzen dituen gaiak dira hauek: iraupen luzeko langabetuei eta lan-merkatutik aldenduak dauden pertsonari eman beharreko babesa eta gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna.

Helburu estrategikoak lortzeko, Programa Operatiboak ardatz hauek ditu:

- Lehenasunezko 1. ardatza: enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna sustatzea eta laneko mugigarritasuna ahalbidetzea.
- Lehenasunezko 2. ardatza: gizarteratzea sustatzea eta pobrezia-aren aurka eta edozein bazterkeriaren aurka egitea.
- Lehenasunezko 3. ardatza: hezkuntza, prestakuntza eta lanbide-heziketan inbertitzea gaitasunak eskuratzeko eta etengabeko ikaskuntza bultzatzeko.
- Lehenasunezko 6. ardatza: gizarte-berrikuntza.
- Lehenasunezko 7. ardatza: lankidetzaren transnazionala.

Egindako aurreikuspenen arabera, enpleguarekin lotuta Programak finantzatutako proiektuetan milioi bat pertsonak baino gehiagok parte hartuko duela uste dute. Honako hauek dira horiek: kontratazio mugagaberako pizgarriak, lan-bilaketarako orientazioa, ekintzailatza bultzatzea edo lanbide-heziketa duala.

Hezkuntza arloko proiektuak bostehun mila pertsonari baino gehiagori zuzenduta daude eta lanbide-heziketaren eskaintza areagotzea edo ikasketak modu goiztiarrean uztearen aurkako borroka biltzen dute.

Era berean, Programak aurrez ikusitakoaren arabera, gutxi gorabehera ehun mila lagunek hartuko du parte gizarteratzearekin eta txirotasun-arriskua gutxitzearekin lotutako proiektuetan. Hor sartuta daude gizarteratzeko ibilbide integratuak.

Informazio gehiago:

http://www.mecd.gob.es/educacion-mecd/dms/mecd/educacion-mecd/mc/fse/fse/como-invierte/PROGRAMA_OPERATIVO_DE_EMPLEOx_FORMACIxn_Y_EDUCACIxn.pdf



> Europako Batzordeak eta Inbertsioen Europako Bankuak “Juncker Plana” aurkeztu dute euskal eragile ekonomikoen aurrean

Europako Batzordeko eta Inbertsioen Europako Bankuko ordezkariak urtarrilaren 21ean aurkeztu zuten Bilbon “Juncker Plana” izenarekin ezagutzen dugun inbertsioen plana. Horren helburua Europako inbertsioa, hazkundea eta enplegua berriro indartzea da.

Ekitaldiak ehun lagun inguru bildu zuen (enpresaburuak, finantza arloan adituak eta erakundeetako arduradunak) eta bertan izan ziren honako hauek: Juergen Foecking, Europako Batzordearen Espainiako Ordezkaritzako Sektore Publikoko burua; Alberto Barragán, Inbertsioen Europako Bankuaren (IEB) bulegoko zuzendaria; Arnd Beck, Euskadin IEBren eragiketen arduraduna; eta Angel Landabaso, garapen ekonomikoko eta lehiakortasuneko Eusko Jaurlaritzaren aholkularia. Ekitaldia moderatzeko lanak Paz Guzmánek, Europako Batzordeko ekonomialariak, bete zituen.

Europarako Inbertsioen Juncker Planaren oinarria inbertsiorako oztopoak kentzea, inbertsio-proiektuei ikusgarritasuna eta laguntza teknikoa eskaintzea eta finantza-baliabideak modu argian erabiltzea da. Helburu horiek lortzeko, Planak hiru esparru biltzen ditu: 1) hiru urteko epean inbertsio pribatuko 315.000 milioi euro mobilizatzea (urteko Europako BPGaren % 0,8ren baliokidea). 2) benetako ekonomia arloko inbertsioa bultzatzea. 3) Inbertsiorako aldeko testuingurua sortzea.

Informazio gehiago:

<http://www.eib.org/>

http://www.camarabilbao.com/ccb/noticias/el_plan_de_inversiones_para_europa/contenidos/6592031/noticias



> Euskadi eta Akitania Garraioetako Europako Komisarioarekin bildu dira Atlantikoko tren-korridorearen proiektua lantzeko

Lehendakaria, Iñigo Urkullu, Akitaniako presidentearekin, Alain Roussetekin, batera, Garraioetarako Europako komisarioarekin, Violeta Bulc-ekin, bildu da Bruselan Atlantikoko tren-korridorearen proiektua lantzeko.

Bi presidentek Atlantikoko tren-korridorearen lehentasuna nabarmendu nahi izan dute; izan ere, Euskadi-Akitania Euroeskualdeko lankidetzaren areagotzea ahalbidetzeaz gain, Paris-Algeciras eta Paris-Lisboa ardatzetako erdigune bihurtuta lehia mailako abantaila ekarriko luke proiektuak.

Egindako bilera horretan, abiadura handiaren bidezko bidaiarien garraioa landu dute, baina merkantzien garraioa ere nabarmendu nahi izan dute.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/30533-lehendakari-junto-con-presidente-aquitania-reune-con-comisaria-europea-transportes-para-abordar-proyecto-del-corredor-ferroviario-atlantico>



> Herbehereak izango dute Europar Batasuneko Kontseiluaren txandakako presidentetza

2016ko lehen seihilekoan, Europar Batasuneko Kontseiluaren txandakako presidentetza Herbeherek izango dute.

Hauak dira Holandaren presidentetzaren oinarri izango diren lau lehentasunak:

- Migrazioa eta barneko segurtasuna.
- Europa, enpleguaren eta berrikuntzaren sortzailea.
- Moneta Batasun sendoa.
- Klima-aldaketara eta energia-politikara bideratutako etorkizuna.

Presidentetzaren helburua Europar Batasuna Europako herritarrei eta enpresei interesatzen zaien horretan oinarritzea da; hau da, berrikuntzaren bidez hazkundea eta enplegua sortuko dituen eta gizarte zibilari lotuta egongo den Europar Batasuna.

Informazio gehiago:

<http://eu2016.nl/>



> 2014-2020 Kohesio Politikako ebaluazioari buruzko ikastaroa egin dute

Ogasun eta Administrazio Publikoaren Ministerioako Komunitateko Funtsen Zuzendaritza Nagusiak urtarrilaren 18, 19 eta 20an ikastaroa antolatu zuen Ikerketa Fiskalen Institutuan. Horren helburua 2014-2020 programazio-aldian Kohesio Politikako Ebaluazioari buruzko ezagutzak zabaltzea eta autonomia-erkidegoen ebaluazio-esperientziak partekatzea izan da.

Landutako gaien artean, produktibitatearekin eta emaitzekin lotutako adierazleen sistemak sakondu zituzten. Horrez gain, ebaluazioen tipologia ugariak landu zituzten: eragingarritasuna, eraginkortasuna, emaitzak eta inpaktua). Bertaratutakoek autonomia-erkidegoetako ebaluazioko benetako adibide batzuk modu sakonagoan ezagutzeko aukera izan zuten. Horrekin lotuta, I+G+b, IKT, nazioartekotzea, finantza-tresnak eta beste hainbat ebaluazio tematikoren esperientziak azaldu zituzten.

Ikastaroan izan ziren autonomia-erkidegoetako tarteko erakundeetako ordezkariak eta EGEF programa operatiboen kudeaketako eta ebaluazioko jardueretan adituak direnak.

Informazio gehiago:

<http://www.ief.es/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europako Batzordeak I+Gko 7. Esparru Programaren amaierako ebaluazio-txostenari erantzun dio

Europako Batzordeak jakinarazpena argitaratu du Ikerketa eta Garapeneko 7. Esparru Programako (7PM) lorpenak eta eragingarriak ebaluatzen zituen goi mailako kanpoko adituen taldeak egindako gomendioei erantzunez.

Goi Mailako Adituen Taldearen txosten horretan, 7PMan lortutako ekintzak goraiatzeko zituzten adituek: Ikerketako Europako Esparrua lortzen laguntzeko Europar Batasun osoan egindako ikerketa arloko lankidetzak, bikaintasuna bultzatzea, behetik gora (“bottom-up”) egindako oinarritzko ikerketa eta ikerlarien mugigarritasuna sustatzea besteak beste. 7PMren urritasunen artean, esate baterako, honako hauek aipatzen dira: agenda ezartzeko garaian dagoen garrantzitsua eza, arrakasta-tasa eta 7PMren azpi-programa espezifikoen arrakastarako faktoreak.

7PMko tarteko ebaluazioan aipatutako HORIZON 2020ren aldaketek eta hobekuntzek gain, honako hauek gomendatzen ditu HORIZON2020rekin lotuta: mundu mailako erronketan gehiago zentratu beharko litzateke, Europar I+Gko agenda estrategikoa sortzen lerrotzeko eta harmonizazio handiagoa garatu beharko luke, Europako Batzordearen eta agentzia betearazleen artean erantzukizunen banaketa eragingarria ezarri beharko litzateke, Zientzia Europako herritarrengana gerturatu beharko litzateke eta ebaluazioaren eta estrategiaren jarraipena ezarri beharko litzateke.

Informazio gehiago:

https://ec.europa.eu/research/evaluations/pdf/archive/fp7-ex-post_evaluation/commission_communication_1_en_act_part1.pdf#view=fit&pagemode=none

https://ec.europa.eu/research/evaluations/pdf/archive/fp7-ex-post_evaluation/commission_communication_1_en_act_part1.pdf



> **Sozietateen gaineko zergak saihestearen aurkako Europako neurri berriak**

Europako Batzordeak zerga-sistema ekitatiboaren eta hazkundearen aldeko kanpainaren baitan, Europar Batasunerako proposamen berriak aurkeztu ditu sozietateen gaineko zerga saihesteari aurre egiteko.

Neurri berri horiek kide diren estatuak zergak ordaintzea saihestu nahi duten enpresen aurka jarrera sendoagoa eta koordinatuagoa hartzera premiatzen dituzte. Era berean, zerga-oinarria jaistearen eta irabaziak lekuz aldatzearen aurkako nazioarteko estandarrak aplikatzeko eskatu diete estatuei.

Hauek dira proposamen berri horien oinarritzko elementuetako batzuk:

- juridikoki lotzaileak diren neurriak enpresek zergak ez ordaintzeko gehien erabiltzen dituzten metodoak blokeatzeko.
- Zerga-hitzarmenen arloan gehiegikeriak prebenitzeko moduaren inguruan kide diren estatuei egindako gomendioa.
- Kide diren estatuak Europar Batasunean lan egiten duten enpresa multinazionalen inguruko zerga arloko informazioa truka dezaten proposamena.
- nazioarteko mailan, gobernantza fiskal ona bultzatzeko ekintzak.
- Europar Batasuneko prozesu berria garbi jokatzeari uko egiten dieten hirugarren herrialde batzuen zerrenda egiteko.

Neurri horien bidez, Batzordeak honako hauek lortu nahi ditu: zerga-plangintza agresiboa zailtzea, kide diren estatuen arteko gardentasuna areagotzea eta, merkatu bakarrean, enpresa guztien arteko lehia ekitatiboagoa bermatzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/company_tax/anti_tax_avoidance/index_en.htm

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-16-159_es.htm



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> 30 arrazoi Espainiak Europar Batasunean daramatzen 30 urteetarako (Europako Parlamentua)

Espainia Europar Batasunean sartu zeneko 30. urteurrena ospatzeko helburuarekin, Europako Parlamentuak argitaratu duen dokumentuak Europako politikaren esparru nagusien egoera eta aurreikuspenak jasotzen ditu (inbertsioak, ekonomia, prestakuntza, osasuna, I+G+b, nekazaritza, garraioa, arrantza...).

Informazio gehiago:

http://www.europarl.es/resource/static/files/30_Aniversario_Espa%C3%B1a_UE/30_razones_octubre_2015.pdf

> 2016ko Hazkunderari buruzko Urteko Ikerketa Prospektiboa (Europako Batzordea)

Batzordearen urteroko txostenak Batasuneko hazkunderako eta enplegurako Europako agendako ildo nagusiak biltzen ditu. Ikerketak abiarazi du gobernantza ekonomikoaren urteko zikloa. Gainera, EBrako lehentasun ekonomiko nagusiak finkatzen ditu eta kide diren estatuei hurrengo urterako orientabideak eskaintzen dizkio.

Hazkundera bultzatzeko, bateratasun ekonomikoa sendotzeko, enplegua sortzeko eta justizia soziala indartzeko lanetan kide diren estatuei laguntzeko Europa mailan eman beharreko urratsak aipatzen ditu Batzordeak lan horretan.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/2016/ags2016_annual_growth_survey_es.pdf



> **Europar Batasunean inbertsioen errentagarritasun handiena lortzeko kontratazio publikoari buruzko gida (Europako Batzordea)**

Dokumentu honen helburua Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen kudeaketan parte hartzen duten eragileei orientazioak eskaintzea da Administrazioetik kontratazio publikoen prozedurak bideratzeko garaian identifikatzen laguntzeko, akatsen arrisku potentzialeko esparruak ekiditeko eta jardunbide egokienak izateko.

Dokumentuak jardunbide egokien, benetako adibideen, gai espezifikoaren azalpenen, kasuen azterketen eta txantiloien bilduma jasotzen du. Gainera, ikusizko tresnak, legegintzako testuetarako erreferentzia-estekak eta informazio-iturriak ere biltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/informat/2014/guidance_public_proc_es.pdf



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Gazte Ekintzaileentzako 2016ko Erasmus programa (COS-EYE-FPA-2016-4-01) (+ [info](#))**
- **Hiritartasunerako Europa 2016**
 - **Europako memoria historikoa (+ [info](#))**
 - **Hirien senidetzea (+ [info](#))**
 - **Hirien sareak (+ [info](#))**
 - **Gizarte zibileko proiektuak (+ [info](#))**
- **Urban Innovative Actions. 2016ko deialdia (+ [info](#))**
- **Horizon 2020. III azpiprograma "Gizarteko erronkak" (+ [info](#))**
- **Donostia 2016. Unibertsitateko ikasleen prestakuntza eta ikerketa bultzatzeko diru-laguntzak**
 - **Master-amaierako lanak eta monografikoak bultzatzeko deialdia (+ [info](#))**
 - **Gradu-amaierako lanak bultzatzeko deialdia (+ [info](#))**